

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko uztailaren 20a. IX. urtea. 2.388. zenbakia. tolosaldea.hitza.info




Eskualdeko alkateak Tolosako udaletxean elkartu ziren herenegun, TOPA koordinakundearekin bat eginez. I.GARCIA LANDA

Angel Rekalde

Nabarralde elkarteko zuzendaria

«Gure herriaren historiaren oinarritzko ezagutza izan beharko genuke»

Elkarrizketa 06



Tolosaldeko alkateek osasun publikoaren alde egin dute

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde taldearekin bat eginez, aurtien iaz baino osasun zerbitzu «okerragoa» dagoela diote

Udal ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Rafael Bengoa Osasun sailburuarekin bildu nahi dute eta bilera eskaera bidaliko diotela esan dute 06

Aitziber Ibarbia Mendi lasterkaria

«Errepidetik datorrenak beste jarrera bat izaten du»

Mendi Lasterketen Munduko Kopan lehiatzen ari da zizurkildarra euskal selekzioarekin 05



Zizurkilgo emakumeen egoera aztertu nahi du udalak

Emakumeak Zizurkilen beka atera du Parekidetasun batzordeak; 3.000 euroko laguntza emango dute eta abuztuak 7 da lanak aurkezteko azken eguna 04



IRANI GONOSTIDI (BALONINDO ARBORADUNA) PEDRO ESTEBAN BERRAZQUE (NOTARIA) eta FRANCISCO JAVIER BELDARRAIN.

Motoaren zozketa

IRABAZLEA
Francisco Javier
Beldarrain

logika line

943 31 86 11

San Francisco 19, Tolosa



Benetazala
ofiziala

Oargirekin Picos de Europara joateko aukera San Inazio zubian

Hilaren 27tik 31ra egingo dute bidaia eta hiru gailur igotzeko asmoa dute mendi elkarteko kideek

I. Garcia Landa

Oargi mendi elkarreak Picos de Europara bidaia antolatu du. San Inazio zubian izango da, hau da, hilaren 27an Tolosatik atera eta hilaren 31n itzuli. Pico de los Cabrones, Torre Cerredo eta Neveron de Urriello mendiak igoko dituzte.

Hilaren 27an, ostirala, Tolosatik irten eta Arenas de Cabrales herrian lo egingo dute. Hurrengo egunean, hilak 28, Puente Ponce-

bos-etik Jose Ramon Lueje aterpetxera igoko dira lo egitera uraren kanaletik zortzi ordu inguruko bidea eginez. Hilaren 29n, Pico de los Cabrones eta Torre Cerredo mendiak igoko dituzte eta berriro ere aterpetxera jaitsiko dira lo egitera. Hurrengo egunean, hilak 30, Neveron de Urriello mendia igoko dute eta berriro aterpetxean egingo dute lo. Azken egunean, hilak 31, Puente Poncebos-era jaitsiko dira Amuestik eta Tolosara itzuliko dira.

Izena emateko 688 69 86 42 zenbakira deitu edo info@oargi.org helbidera idatzi behar da. Horretarako azken eguna uztailaren 25a da. Izena ematerakoan 30 euro aurreratu beharko dira, Euskadiko Kutzaren ondorengo kontuan: 3035 0028 11 0281141038.



Picos de Europa mendien ikuspegia. HITZA

→ Laburrak

Doctor Deseoren kontzertua, urriaren 6an

TOLOSA > Doctor Deseo taldeak irailaren 14an Tolosako Leidor aretoan ematekoa zuen kontzertua urriaren 6ra pasatu da arrazoi teknikoak direla eta. Sarrerak salgai daude bai Leidor aretoko leihatilan (zinema saioen ordutegian), eta bai www.kutxa.net helbidean.

Udalbatzak osoko bilkura egingo du astelehenean

TOLOSA > Datorren astelehenean, hilak 23, Tolosako Udalbatzak osoko bilkura egingo du, 19:30ean. Besteak beste, gai hauek jorratuko dira: Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako hiri hondakinen kudeaketari buruzko mozioa, EAJk aurkeztutako Tolosaldeko harrobi eta meategiei buruzko mozioa, eta udal langileekiko hitzarmenari buruz komiteak eta gobernu taldeak gauzatutako konpromisoak.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sindikatuak eta gizarte eragileek deituta, 250 pertsona inguru elkartu ziren elkarretaratze zaratatsuan. IGL

Elkarretaratze zaratatsua egin dute murrizketen aurka

Azken bi urteotan funtzionarioen eros ahalmena %20an jaitsi dela salatu dute

Imanol Garcia Landa

Hainbat sindikatu eta gizarte eragilek deituta, Espainiako Gobernuak egin dituen murrizketen aurkako elkarretaratze zaratatsua egin zuten 250 pertsona inguruk Tolosako Trianguloa plazan, herenegun arratsaldean. Aurreko egunean Lanbideren egoitza aurrean egingako elkarretaratzean bezala, *Bankarentzat dirua, herritarrentzat pobrezia, murriz-*

ketaririk ez lelopean egin zuten protesta, eta lapikoak eta txilibitua erabili zituzten zarata egiteko.

Elkarretaratzean parte hartu zuenetako bat Osakidetzan lan egiten duen Kristina Otermin erizaina izan zen. «Espainiako Gobernuak daraman politika horiekin gure lan baldintzak pila bat okertu dira eta horrek zerbitzuaren kalitatean eragina du», esan du Otermin.

Funtzionarioek azken bi urteetan soldatan murrizketak izaten ari direla esan du Otermin: «Azkeneko neurria aparteko ordainsaria kentzea izan da, baina aurretik ere beste murrizketa batzuk egin dituzte, eta horrek gure eros ahalmenaren %20 galtzea ekarri digu».

Oterminen gogora ekarri ditu jasotako murrizketak: «Soldataren %5a kendu ziguten, bajako egunak ez dizkigute %100ean ordaintzen, ordu gehiago sartu behar ditugu, eta orain aparteko ordainsari bat kendu digute». Neurri horiekin, ordezkapen gutxiago egiten direla azaldu du Oterminen eta horrek langile bakoitzak gaixo gehiago ikusi beharra eragiten duela nabarmendu du. «Horrela zerbitzuaren kalitatea murriztu egiten da», zehaztu du Otermin.

Raxoiren gobernuak egindako murrizketek funtzionarioei ez ezik langabetuei, pentsiodunei eta menpekotasunari lotutako diru laguntzak jasotzen dituztenei eragiten die.

Hondakinen inguruko lan mahaia osatzea eskatu du Tolosa Txukunek

Eskaera udalari egingo diote gaur, alkatearekin izango duten bileran; atez atekoaren aurka 6.500 sinadura dituzte

I. Garcia Landa

Tolosa Txukun plataformak udalari hondakinen inguruko lan mahaia osatzea eskatu dio gaur, Ibai Iriarte alkatearekin egingo duen bileran. Patxi Amantegi plataformako kideak azaldu duenez, «ulertzen dugu zaborra arazo bat dela Tolosan eta toki guztietan, birziklapen tasak igo egin behar direla, eta hori aurrera eramateko jendearen inplikazioa beharko dela». Inplikazio hori lortzeko, «ezinbestekoa» iruditzen zaio Amantegiri «denek ongi ikusten dugun zerbait egitea. Ho-

rretarako lantalde bat osatu behar da besteen ikuspuntuak jasotzeko eta denen artean irtenbide on bat osatzeko».

Plataformak atez ateko sistemaren aurka jasotako 6.500 sinadura aurkeztu zituen notarioaren aurrean, eta horren egiaztapena aurkeztuko dio udalari. «Notarioaren aurrera sinadurak aurkeztearen arrazoia izan da, alde batetik, kopuru esanguratsua dela iruditzen zaigulako eta, bestetik, denbora gure kontra doalako», esan du Amantegik. Atez ateko sistema martxan jartzeko asmoa duten udalerrietan, «eta oposizioirik ez dagoenetan, egutegia martxan jarri da», esan du. Beraz, Amantegik zehaztu duenez, «garrantzitsua iruditzen zaigu Tolosako biztanle kopuru handi batek dagoeneko adierazten duela atez atekoaren kontra dagoela».

Sinadurak biltzen jarraituko

duela gaineratu du plataformako kideak: «Ez da horren garrantzitsua adieraztea zenbat sinadura egongo diren, baina kopuru batetik gora kontuan hartzekoa da, eta edozein pauso ematerakoan sinadura horiek kontuan hartu behar dira».

Amantegik gogora ekarri du sinadura bilketarekin lortu nahi dutena: «Birziklapenaren bidean jarraitu bosgarren edukiontzia erabiliz, ez dagoela ados atez ateko sistema ezartzearekin, eta hori ezartzeko ideia balego herri kontsulta egitea».

Bestalde, Amantegik gaineratu duenez, «udalak hainbat mozio eraman ditzake aurrera, baina batzuetan ez da kontuan izaten herritarrek pentsatzen dutena. Botoak eman daitezke mila arrazoiengatik, baina horrelako gai jakin batean izan daitezke beste-lako iritzia».



Hamabi eszenografiaren bidez, haur eta gaztetxek txotxongilolari izateko aukera izango dute. HITZA

Munduko ipuin ezagunenaren eszenatoki izango da Euskal Herria plaza, gaur eta bihar

El Burro dels Jocs talde kataluniarraren eskutik, 'Titellarium' muntaketa aurkeztuko du Topic zentroak

Iztea Urkizu Tolosa

Mundu osoko ipuin ospetsu eta ezagunenak gogora ekartzeko hamaika eszenatoki izango dira Euskal Herria plaza, gaur eta bihar, Topic zentroak antolatuta. Herrialde Katalanetako El Burro dels Jocs konpainiaren eskutik, *Titellarium* muntaketaz gozatu ahal izango dute haur eta gaztetxoeak.

Txanogorritxo nahiz Ali Baba moduko pertsonaietan oinarrituta, fantasiako mundu horietara helaraziko dituzte ikusleak, eszenografia eta antzerkiaren bitartez. Modu honetara, gaztetxoeak egun batez txotxongilolari izateko aukera izango dute.

El Burro dels Jocs konpainiak, hamabi eszenografiak osaturiko bi emanaldi egingo ditu, guxtienez, Euskal Herria plaza; 18:00etatik 21:00etara bitarte ariko dira, gaur eta bihar.

Familientzako jolasak nahiz kalean egitekoak antolatzen espezializatutako taldea da El Burro dels Jocs. 2006. urteko azaroan sortu zen, eta aurretik ere ikuskizunetan, aisialdian nahiz folkloreak munduan eskarmentu handia duen jendea dago taldeki-deen artean.

Jolasen bidea, hezkuntzarako

garrantzitsuak diren hainbat balore helaraztea du helburu konpainiak, nabarmendu duenez: «Gure proposamenak gauzatzen ditugu, kulturaren balioa alboratu gabe, eta alderdirik ludikoaren aldeko apustu garbia egiteaz gain, tradizioen, jakintzaren eta hezkuntzaren transmisioan laguntzen saiatzen gara, jolasa gure kulturaren funtsezko osagarria dela uste baitugu».

Taldeak jendeari tradizioak eta kulturak jai giroan eta jolasaren bitartez helaraztea helburu duen arren, beti ikuspuntu berritzaile bat mantentzen saiatzen direla diote: «Kalitatea eskaini nahi izaten dugu gure ikuskizunetan, eta baita errespetua ere. Izan ere, askotariko ikuslegoa izaten da hurrentzako eta familientzako kaleko ikuskizunetan».

El Burro dels Jocs taldeko kideek, ezinbestekotzat dute antolatzailerik nahiz parte hartzaileei ilusioa sortzea. Horrela beraz, lekuaren eta ikusle motaren arabera moldatzen dituzte antzezpenak *Titellarium* muntaketarekin: «Bertan sortzen diren harremanak ere oso garrantzitsuak dira».

Mundua miniaturan

Datorren abuztuaren 8an, bestalde, puzzleen bitartez miniaturretako munduak sortzeko tailerra izango da Topic eraikinean.

Stefanino de Angelis eta Marco Ieie-k eskainiko duten tailer honetan, kortxoak, alanbreak, sokak, tapoiak eta antzekoak, berberak, izaera desberdina duten sei hiri eraikiko dituzte parte har-

tzaileek. Amaieran, hiri erraldoi bat osatuko dute sei hiri txikiak elkartuta.

Behin hiria eraiki eta gero, honek osatuko duen instalazioan jolas hasiko dute: antzezpen bat izango da, eta bertaratuek soinuak, argi isladak, itzalak, mugimenduak eta beste hainbat efektu erabiliz, antzezpen txiki bat sortuko dute.

Kultura eta tradizioa jolasaren bitartez helaraziko dituzte kataluniarrek

Berrerabiltzen eta hausnartzen ikasiko dute gaztetxoeak miniaturren ikastaroan

Ingurumenaren eta naturaren inguruan hausnarketa txiki bat egiteko «aukera paregabea» dela nabarmendu dute Topic zentroko arduradunek. Era berean, gizakiak natura horren gainean egiten dituen eraikuntza artifizialen inguruan pentsaraztea ere helburuetako bat da.

Izan ere, *Puzzle: mundua miniaturan* tailerra, haur nahiz helduei begira antolatutakoa da.

Mugaturiko lekuak izango ditu berrerabiltzen oinarrituriko tailerrak, eta izen-emateak 20 euroko prezioa izango du. Abuztuaren 8an izango da *Puzzle: mundua miniaturan* tailerra, Topic zentroan, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

Dantzarako doinuak eskainiko ditu, gaur, musika bandak

Udako kontzertua izango da, Lopez Mendizabal plazan, 23:00etatik aurrera

I. Urkizu

Tolosako Musika Bandak, bere udako kontzertuan, dantzarako askotariko doinuak eskainiko ditu, gaur, 23:00etan, Lopez Mendizabal plazan.

Urtero uztaileko gauren batean egiten duten moduan, aurtenean ere udako emanaldi berezia prestatu dute bandako musikariek, eta Enrike Arostegiren zuzendaritzapean, guztira, hamalau obra entzungai nahiz dantzagai izango dira bertaratuentzat.

Kanpoko eta bertako doinuak Genero nahiz jatorri askotariko obrak prestatu ditu Tolosako Musika Bandak, gaur gaueko emanaldirako.

Horrela, bertaratuek dantza-tzeko moduko abestiak izango dira guztiak.

Kontzertua pasodoble batekin hasiko da; *Si vas a Calatayud* izeneko Zarzosoaren obrarekin hain zuzen. Jarraian, Lorenzo Boccik moldatutako *Fiesta* interpretatuko dute, eta *El Cumbachero*, *Tico Tico* nahiz Brasil eta Mexikoko doinuen artean osaturiko pieza izango da.

Hirugarren obra, hainbat herri kanta euskaldunekin Iñaki Urkizuk moldatutako *Jaialdia* obra izango da; besteak beste, *Guk euskaraz*, *Mate mate*, *Oh Peio Peio* eta *Nere herriko neskatza mate* doinuak entzun ahal izango dira.

Jarraian, Alberto Dominguezek konponatutako, eta Nachiro Iwai-k moldatutako *Frenesi* eskainiko dute, eta *The Beatles in concert* izeneko moldaketa etorriko da ondoren; talde britainiarren *Michelle*, *Ticket to Ride*, *Yesterday* eta *Ob la di ob la da* abestiek osatuko dute obra.

Euskal musikara itzuliz, Oso korri taldearen *Forjarjen kanta* ere entzungai izango da, eta *Grease* filmeko doinuekin amaituko da kontzertuko lehen zatia; *Grease*, *Summer nights*, *Hopelessey devote to you* eta *You're the one that I want* eskainiko ditu musika bandak.

Homrando a Navarra izeneko obrarekin hasiko da bigarren zatia, berriro ere pasodobleari bere artea emanez. Pasodobleari doinu mexikarrek jarraituko diote, Olivadoti autoreak moldatutako *South of the rio* obrarekin; *Cielito lindo*, *El Choclo*, *Chiapanecas*, *La cucaracha*, *La Violetera*, *La Sorella* eta *El Relicario* doinuak eskainiko dituzte.

Gero, *Abba Gold* izenburupean, Dancing Queen, Mamma mia nahiz Fernando abesti ezagunak interpretatuko dituzte, eta *Santana* etorriko da jarraian, Carlos Santanaren zenbait abesti elkartrukatu.

Tom Jones abeslariaren doinuei ere eskainiko diete tarterrik, *Tom Jones in concert* moldaketarekin, eta kontzertua amaitzeko, *Xalbadorren heriotzean* eta *La dominguera* izeneko jota eskainiko ditu Tolosako Musika Bandak.

Datorren irailaren 14an, Tolosako Garagardo Azokaren harira eskainiko du bandak, hurrengo emanaldia.

• tolosa@hitza.info



Udako emanaldian dantzarako doinuak eskainiko dituzte. HITZA

**BIDANIKO
HERRI OSTATUA
ERRENTAN**

ALOKAIRUA:
HILEAN 300 EURO + BEZ
5 URTEKO KONTRATUA

IZEN EMATEKO EPEA:
UZTAILAREN 27a

BIDEGOINGO UDAL BULEGOETARA DEITUZ: 943 68 11 09

Zizurkilgo emakumeen egoera aztertzeke beka emango du udalak

Parekidetasun batzordeak Emakumeak Zizurkilen beka atera du; Zizurkilgo Udalak 3.000 euroko diru laguntza emango du

Abuztuaren 7a, asteartea, izango da proiektuak aurkezteko azken eguna

Eneritz Maiz Zizurkil

Zizurkilgo Udaleko parekidetasun batzordeak, Emakumeak Zizurkilen beka atera du. Helburua herriko emakumeen egoeraren diagnosi orokor bat egiteaz gain, etorkizuneko proiektuen eta planen oinarri izatea litzateke. «Herrian bizi diren emakumeen errealitatea ezagutzeko», ezinbestekotzat jo du udalak.

Gizon eta emakumeen arteko aldeak azpimarratzeaz haratago iritsiko den ikerlan bat bultzatu nahi dute. Zizurkilgo emakumeen gabeziak, beharrak, ahalguneak eta indarguneak aztertzea nahi dute beka berri horrekin. Aldi berean, emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko planak eta proiektuak egokitzerako orduan, oinarri izango den proiektua izatea nahi dute.

Lanak abuztuaren 7an, asteartean, 12:00ak baino lehen aurkez-

tu beharko dira. Proiektua barne, dokumentazio guztia aurkeztu beharko da Aurrera plazako udal bulegoetan. Behin proiektu guztiak aurkeztuta, bekadunaren izena udazkenean emango dute jakitera. Zizurkilgo Udalak 3.000 euroko diru laguntza emango dio lana burutzeko.

Informazio guztia www.zizurkil.eu udalaren webgune berri-tuan zintzilikatu dute. 943 69 24 95 telefono zenbakira deituz edota udal bulegoetara joanda ere eskuratu daiteke.

Ezinbestekoa euskaraz egitea Zizurkilgo Udalaren bekarekin lana egin nahi duenak euskara izango du ezinbesteko hizkuntza. Euskara zuzen eta egokia erabili beharko da. Epaimahaiak proiektuak aztertu ahal izateko jorratu beharreko zenbait atal zehaztu ditu. Hala ere, Zizurkilgo emakumei buruzko diagnostia ikertze-

↓ Irizpideak

- **Txostena.** 0-30 puntu artean baloratu da.
- **Antzeko lanak.** 0-10 puntu artean baloratu da antzeko ikerketak egin izana.
- **Ikasketak.** Gizarte zerbitzuetan ikasketak egiten ariteza puntu 1; adarreko diploma izatea 2 puntu; adarreko lizentziatua izatea 3 puntu; adarreko graduondoko titulua edo masterra izatea 5 puntu.
- **Bizilekua.** Zizurkil edo Aiztondo bailarakoa izatea, 2 puntu.

ko proiektuak ikerketa bera nola garatzeko asmoa duen jaso beharko du. Aurkezten den proiektuak gehienez ere hamar orriko luzera izango du.

Hasteko, sarrera bat izan beharko du eta bertan, helburuak, metodologia edota egitura argitu beharko dira. Behin gaien sartuta, Zizurkilgo emakumeen egoeraren, baldintzen, beharren, interreguneen, indarguneen eta abarren azterketa zehatzak ondoko esparru eta arloetan burutu beharko dira: udalean, kulturen eta kirolean, hezkuntzan, lan munduan, hirigintzan, garraioan eta ingurugiroan. Indarkeria sexista



Emakume baseritarrei eskainitako eskultura dute Zizurkilen. HITZA

ere kontuan izan beharreko puntua izango da.

Ikerlanaren ondorioak atalez atal, eta baita ikuspegi soziologiko eta antropologiko orokor batek azaldu beharko dira, eta bukatzeko, ikerketa burutzeko erabilitako material eta agirien bilduma sartu beharko da.

Ikerketarako beka honetara barka edota taldean aurkeztu daiteke. Taldean aurkeztuz gero, taldeko arduraduna izendatu behar da. Aukeratua den bekadunak edo bekadunek, edukia zientifikoki azaldu beharko dute, hau da, dokumentatu, gaurkotutako metodologiak adierazi eta agertuko

dituzten datu guztiak nondik jasoko diren zehaztu beharko dituzte.

Era berean, ikerlana material grafiko eta bibliografia zehatzez osatu beharko da. Bukatutakoan, lana, paperean eta modu digitalean aurkeztu beharko da.

Bekara aurkeztu ahal izateko, unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulua izan beharko da. EGA edo baliokidea izatea ere beharrezkoa izango da, eta hautaketa egitean lehenetsi egingo dituzte txostenean eta lan eskeman hizkuntza gaiak ongi aztertzen eta euskaraz ondo idazten trebetasuna agertzen dutenak.

→ Laburrak

Santiago egunez izango da San Isidroetako bazkaria

ALKIZA > Ostatu Jatetxea berriz ireki dutela eta, Santiago egunez egingo dute San Isidro eguneko bazkaria, Alkizan. Hilaren 23a izango da izena emateko azken eguna, eta Ostatuan bertan eman beharko da. Bazkaria 14:00etan izango da.

Herritarren arteko herri kirolekarako bilera

IKAZTEGIETA > Urtero bezala, herriko San Lorentzo Jaiei herritarren artean egindako herri kirolekin emango zaie hasiera. Bi talde osatuko dira, adin arte eta sexuak nahastuta. Herritar guztiei parte hartzeko gonbidapena egin diete antolatzaileek eta bilera deitu dute. Guztia lotzeko, hilaren 24an, asteartean, bilera egingo dute Ostatu tabernan.

Festetako txartelak salgai egongo dira abuztuaren 1a bitartean

E. Maiz ikaztegieta

Ikaztegieta festa batzordeak San Lorentzo Jaietarako prestatu dituen otorduen txartelak salgai jarri ditu. Toki Alai eta Ostatu tabernetan jarri dituzte, eta abuztuaren 1a izango da txartelak erosteko azken eguna.

Herriko jaiak abuztuaren 9tik 12ra izango dira. Herrira eguneko afaria, abuztuaren 9an izango da. Kuadrilla eguneko bazkaria larunbatean egingo dute, eta haurrek makarroiak eta helduek pae-lla izango dute bazkaltzeko. Herri afaria, berriz, igandean izango da.

Txartelak epe barruan erosi beharko dira, eta epez kanpo ez da txartel salduko.

o alegiatza@hitza.info

Euskal Jaiaren bezperako sega saioa antolatzeke bilera egingo da

E. Maiz Anoeta

Urriaren 14an, igandean, Euskal Jaia ospatuko dute, Anoetan. Oraindik urruti badago ere, antolaketa lanak egiten hasiak dira Anoetako Udalean. Bezperan, berriz, azken urteetako ohiturari jarraituz, sega saioa egin nahi dute.

Aurten, ordea, zerbait berri-tzailea egin nahi dute, eta antolatzaileek jende berriak parte hartzea nahi dute. Sega saioan parte hartzeko gazte eta helduei dei egingo diete, eta baita neska zein mutilei ere. Guztia antolatzeke, hilaren 24an, asteartean, bilera egingo dute Anoetako udaletxean. 19:00etan izango da, eta interesa duen edonork parte hartu dezake bertan.

Uda honetan **zatoz** HITZAren itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta laso eguzkitako hau oparil!

Harpidedunen artean **Surfboard** Surf Harpidedunak **surf taula** erosten ditugu

Harpidedunak: **902-82 02 01** harpidetza@hitza.info

hitza

Asier Imaz Zizurkil

Euskal selekzioak Mendi Lasterketetako Munduko Kopan parte hartzeko aukera eman dio Aitziber Ibarbiari (Zizurkil, 1977), aurtien lehen aldiz. Horrez gain, Euskal Kopan, iaz lortutako garaipena errepikatzeko bidean da: hiru proba jokatu dira eta hirurak irabazi ditu.

Emaitza bikainak lortzen ari zara aurtengo denboraldian.

Sasoi onean nago, eta horrez gain, gauzak ongi irteten ari zaizkit.

Korrika ibiltzea gogorra baldin bada horrelako distantzietan, mendian are eta gogorragoa izango da, ezta?

Gustuko duzunaren arabera da gogortasuna. Errepidean korri egitea ez zait gustatzen horrenbeste, beraz, niretzat hori gogorragoa da. Mendian desberdina da: beste entrenamendu klase bat, oinez joan zaitezke, beherako errekupeartzeko aukera izaten duzu... hiru ordu inguruko lasterketa izan arren, denetik dauka.

Azken urteetan modan jarri den lasterketa da.

Duela bost edo sei urte, asteburu proba bat izaten zen; egun, bi edo hiru izaten dira. Parte hartzaileak badaudela esan nahi du horrek, eta errepidetik mendira saltoa eman dutenak asko direla. Hori gainera, nabaritu egiten da.

Nola nabaritzen duzue hori?

Mendiarekin izaten duten jarragatik. Aurrez, beraien artean denetik egongo dela esan nahi dut, baina oro har, zikinkeria gehiago uzten dute lurtean. Errepidetik datorrenak beste era batera bizitzen du; lasterketa bat da, bai, baina azken finean mendian zabilza. Ez dut uste guztiak hori ulertzen dutenik.

Paisaiaz gozatzeko aukera izaten al duzu?

Bai, noski, baina beste modu batera. Eguraldi onarekin inguruko parajeak ederki ikusten dituzu, eta 'hura herri hori izango da eta 'beste hura izango da' pentsatzen zoaz. Soraluzean egin nuen azken lasterketa, eta ingurune ederrezt gozatzeko aukera izan genuen. Hori bai, begiratzeko ez zara gelditzen.

Mendian hasi aurretik, errepidean ibiltzen al zinen?

Gaztetan bai, duatloian ibili bainintzen pixka bat. 18-20 urterekin bat egitera ere joan ginen. Gero, azkarrago ibiltzen hasten zara, eta garai bateko korrikako sena itzultzen da, eta azkenean, denak bat egiten du.

Besterik gabe?

Pirinioetara joaten hasi ginen, Alpeetara, eta 8.000 metroko mendi bat egitera ere joan ginen. Gero, azkarrago ibiltzen hasten zara, eta garai bateko korrikako sena itzultzen da, eta azkenean, denak bat egiten du.

Noiz sartu zinen mendi lasterketan buru belarri?

Duela sei urte inguru, 8.000ko Gasherbrum II igotzeko prestatzen ari ginela. Alberto Zerain gurekin joatekoa zen mendira, eta bera mendi lasterketan ibiltzen zen. Sasoiari jartzeko, entrena-



HITZA

Aitziber Ibarbia ▶ Mendi lasterkaria

Errepidean korrika ibiltzea mendian ibiltzea baino gogorragoa egiten zaio Aitziber Ibarbia zizurkildarrari, horregatik, 20 urterekin, zoruz aldatzea erabaki zuen.

«Lasterketa bat da, baina mendian zaude»

menduan berarekin egiten ginituen han eta hemen. Horrela, Benazkatu, eta mendian hastea erabaki nuen, besterik gabe.

Besterik gabe? Pirinioetara joaten hasi ginen, Alpeetara, eta 8.000 metroko mendi bat egitera ere joan ginen. Gero, azkarrago ibiltzen hasten zara, eta garai bateko korrikako sena itzultzen da, eta azkenean, denak bat egiten du.

Noiz sartu zinen mendi lasterketan buru belarri?

Duela sei urte inguru, 8.000ko Gasherbrum II igotzeko prestatzen ari ginela. Alberto Zerain gurekin joatekoa zen mendira, eta bera mendi lasterketan ibiltzen zen. Sasoiari jartzeko, entrena-

bista ikusten egotea, ordu t'erdiko mendi itzuliak egitea, edo bizikletan ibiltzea baiziki.

Zizurkiletik nora joaten zara entrenamenduetara?

Normalean Andatza aldera, eta entrenamendu gogorragoa egin behar baldin badut, Ernio ingurura.

Beti paisaia berdinak ikusten ez al zara nazkatzen?

Hori ere egia da, baina beti daude desberdintasunak: batzutan lainoa, bestetan euria; batzutan lokatza eta bestetan lehorra, edo batzutan behia eskuin aldean egoten da eta bestetan ezker aldean [barreak].

Nor da zure entrenatzailea?

Euskal selekzioan Jokin Lizeaga

urnietarra daukagu entrenatzaile moduan.

Nola sortu zitzaizun Euskal selekzioarekin aritzeko aukera?

Iaz nahiko denboraldi txukuna egin nuen, Euskadiko Kopairabaziaz eta abar. Horren harira, selekzioetik deitu zidaten, eurekin ea ibili nahi nuen galdetzeko. Horrek betebeharrak batzuk ditu berarekin, lehiatzaera kanpora joan beharra, adibidez. Egutegia begiratu, eta baiezkoa esan nien.

Laguntza iturri ere izango da, ezta?

Bidaia, logistika guztia, ... euren kontura joaten da. Gure poltsikotik ez dugu ezertxo ere jartzeko. Gustatzen zaiguna egiteko aukera ematen digute; guk oraindu beharko bagenu, behar bada ez

↓ Lorpen aipagarriak

2012KO DENBORALDIA

■ Euskal Kopa.

Bidarraiko lasterketa, Lakuntza-Aralar eta Isabako lasterketan lehen postuak.

■ Munduko Kopa.

Aizkorri-Zegama lasterketan hamaikagarren postua.

■ Bestelakoa.

Txindokiko bertikalean, bigarren postua.

genuke egingo. Laguntza, beraz, izugarria da.

Irteera puntuan nola dago jantzita mendi lasterketaria?

Normalean lasterketak udaberri- negura bitartean izaten dira, beraz, niki tiradun batekin egoten dira gehienak. Ni nahiko hotz-beroa naizenez, manga motxarekin edo luzearekin egoten naiz, eta ia denak barre egiten didate horrekin. Gero, galtza motz edo kulote batzuk eramaten ditut, eta garrantzitsuenak: zapatilak.

Zergatik dira garrantzitsuenak?

Eguraldiaren edo lur zoruaren arabera, batzuk edo besteak aukeratzeko ditudalako. Irteera puntura bi edo hiru zapatila pareekin joaten naiz. Gero, ibilbidea ezagutzen duen norbaitekin hitz egin dut, asfalto asko, lokatza, harkaitza edo nolako bidea den jakiteko. Zapatilak zoruak asko laguntzen du, lasterketa bat irabaztetik galtzeraino.

Non eramaten dituzu ura, janaria...?

Arroparen poltsikoetan. Azkenaldian gerriko berezi bat ere ematen dut, ur bidoi txiki batekin. Asko edaten duen horietakoa naiz, bestela, kalanbrekin eta gaizki ibiltzen naiz.

Mendian bada beti betetzen den idatzi gabeko lege bat: taldeko norbait beti erortzen da lurerra. Korrika ez al da horrelakorik gertatzen?

Egia esan ez dakit nola ez diren gauza gehiago pasatzen, batzuk nola jaisten diren ikusi beharrik ez dago. Ni nahiko segurutzat joaten naiz, erritmo bat hartu eta horrela jaisten ditut maldak, kontzentrazio handiarekin. Iaz, lau zaintiratu izan nituen, eta ongi jartzeko arazoekin ibili nintzen.

Aurten, tentsio puntu altuarekin hasi nintzen, ia beldurturik. Azkenaldian, ordea, konfiantza berreskuratzen ari naiz. Hala eta guztiz ere, tentsio handiarekin ibiltzen naiz maldan beheara, eta goraka baino gehiago nekaten naiz, tentsio horregatik.

Aurrera begira, zeintzuk dira zure helburuak?

Ondorengo egunetan, Munduko Kopako hiru lasterketa egingo ditut: bi Dolomitetan, eta hirugarrena Alpeetan. Lehen proba Aizkorri-Zegamakoa izan zen, eta hamaikagarren egin nuen, baina oso berde nengoen oraindik, pneumonia bat pasa berria nuen. Hiru lasterketa hauetan ikusiko da eman dezakedan neurria.

Eskualdeko alkateek Rafael Bengoarekin bildu nahi dute

Tolosaldeko herritarrek iazkoa baino osasun zerbitzu «okerragoa» jasotzen dutela salatu dute udal ordezkariak

Imanol Gracia Landa Tolosa

Tolosaldeko osasun eskualdea osatzen duten udaletako alkateek osasun publikoaren alde agertu dira beste behin, eta Rafael Bengoa kontseilariari bilera bat egiteko eskatuko diote.

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) plataformak egindako txostena aurkeztu dute eta osasun zerbitzuaren kalitatea gutxitu egin dela diote: «Gaur egun eskualdeko biztanleok jasotzen dugun osasun zerbitzuaren kalitatea iazkoa baino eskasagoa da».

Horren adibide gisa, mediku espezialisten kopurua aipatu zuten: «Mediku espezialisten kopuruak,

eskualdeko biztanleria kontutan hartuta, 30,9 izan beharko luke. Gure eskualdean, ordea, 20,1ekoa da. Honen ondorioz, itxarote-zerrendak luzatu egin dira». Gu-txienez 10 espezialista baino

Osakidetzak 800 kexa baino gehiago jaso ditu eskualdeko biztanleen adetik

gehiago falta direla, eta ondorioz, «arreta zerbitzua kaskarragoa» dela eta arreta hori jasotzeko pasa beharreko denbora «luzeagoa» dela zehaztu zuten. Bestalde, Osakidetzako Lurralde Ordezkaritzak 800 kexa baino gehiago jaso dituela nabarmendu zuten.

Hitzarmenaren aurka

«Alkateen eta herritarren nahien kontra», 2011ko azaroaren 15ean Osakidetzak eta Asuncion klinikak hitzarmena sinatu zutela ekarri zuten gogora. Akordio ho-



Eskualdeko alkateek TOPA herri koordinakundearekin bat egin zuten, beste behin. I. GARCIA LANDA

rren bitartez, eskualdeko osasun zerbitzuaren kudeaketa Asuncion klinikaren esku gelditu zen. «Hitzarmen honek bidea ireki zion anbulatorioen zerbitzuaren okertzeari», azaldu zuten alkateek, eta espezialista kopurua jarri zuten adibide gisa: «Hau lehenagotik gertatzen ari zen arren, baina honek beste bultzada berri bat eman zion osasun zentroen hустutze horri». Egoera honen aurre-

an, eskualdeko alkateek Rafael Bengoa kontseilariarekin bilera bat egiteko beharra nabarmendu zuten.

Eskualdeko udaletan gaiaren inguruko mozioa aurkezten hasi ziren pasa den apirillean, eta oraindik ere horretan dihardute, «hau guztia salatzeke eta eskualde honetako biztanleen osasun zerbitzua besteetan ematen denaren berbera izan dadin», azaldu

dute alkateek. Oraingoz 24 herritan onartu dute TOPA herri koordinakundeak aurkeztutako mozioa: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Amezketa, Andoain, Anotea, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrraul, Leaburu, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil eta Legorreta.

«Punturik ez galtzen» saiatuko da Tolosa-Getariako trainerua

Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua eskuratu ondoren, Euskotren Ligari begira daude

I. Urkizu Tolosa

Ribamontan al Mar-en (Kantabria, Espainia) eta Pasaian hitzordu bana izango du, asteburuan, Tolosa-Getariako traineruak, Euskotren ligan «punturik ez galtzeko».

Pasa den asteburuan ligako sailkapen estropada jokatu zuten gainerako traineruek, eta modu honetara, San Juan, Zumaia eta Galizia izango dira aurten, Tolosa-Getariaren arerioak emakumezkoen traineru ligan.

Aurten sailkatzeko presiorik ez zutela eta, arraunlarien banakako prestakuntza, nahiz taldean blokea sortzea, iaz baino beranduago lortzen ari direla nabarmendu du Anjel Larrañaga entrenatzaileak: «Ez dugu presio hori sentitu, eta aurreko denboral-

dian baino beranduago ari gara, honi dagokionez». Horrela beraz, San Juan eta Zumaia taldeek Euskotren ligan hasiera sasoi puntu hobean harrapatu dutela dio Larrañagak, eta iaz eskuratu zituzten garaipenak tolosarren eta getariarren aurreikuspenetan dauden arren, oraingoz ahalik eta puntu gutxien galtzea da beren helburua: «Banderak irabaztea garesti suertatuko da aurten ere, eta punturik ez galtzen saiatu behar dugu guk, denboraldi hasiera honetan, gero gure sasoi punturik onenera heltzen garenean, hori guztia errekuiperatu ahal izateko».

Bihar, beraz, 18:00etan jokatu dute Ribamontan al Mar-eko (Kantabria, Espainia) bandera irabazteko estropada, eta igandean, berriz, Pasai San Pedroko uretan, Euskotren bandera jokoan izango da, 12:00etan.

Gipuzkoako hirugarrenak

Pasa den asteazkenean, Tolosa-Getariako emakumeek hirugarren postua eskuratu zuten Gipuzkoako Traineru Txapelketan.

Itsasoaren egoera txarra bista-koia zen, eta gauza bera nabarmendu du Anjel Larrañaga entrenatzaileak: «Eguraldi oso txarra zegoen, eta esan bezala, Zumaia eta Pasaia sasoi hobean daude momentu honetan».

Zozketak hala erabakita, Kottxako badiako laugarren kaletik

Tolosa-Getariak hirugarren postua lortu zuten Gipuzkoako Txapelketan

burutu zuten estropada tolosarrak eta getariarren, baina hirugarren kaletik zihozan sanjuandarrek aurrea hartu zuten hasieratik. Horrela, ziabogan hiru segundeko alde atera zion San Juaneke Zumaia, eta hamabi segunduko, Tolosa-Getariari.

Poparean, traineru sanjuandarrek bere indarra berretsi zuten, eta 12:19.31ko denborarekin txapeldunak izan ziren. Tolosa-Getariak 12:38.86 markatu zuen kronometroan, eta hirugarren postua eskuratu zuten, beraz.

Gaur jokatu dute Tolosa CFko paleta txapelketaren finala

Pasa den uztailaren 6an hasi zen lehia, eta gaur 18:30ean, hasiko da azken partida Berazubiko frontoian

I. Urkizu Tolosa

Gaur amaituko da, pasa den uztailaren 6an hasi zen Tolosa CFen 44. paleta txapelketa.

Guztira, bederatzi bikote aritu dira lehian, Berazubi estadioko frontoian: Otermin-Errasti, Bengoa-Txepe, Ormazabal-Iban, Mendigain-Perurena, Berdegue-Pagoaga, Zabala-Aldazabal, Apeztegia-Maiza, Karrera-Izagirre eta Zelaia-Agirre.

Atzo arratsaldean Otermin-Errasti eta Karrera-Izagirre arteko izan zen finalerdi bat, eta bestea, berriz, Apeztegia-Maiza irte eta Ormazabal-Ibanen arteko. Bi bikote irabazleek 18:30ean jokatu dute, gaur, finala.

Rafa Ruedak kontzertu akustikoa eskainiko du Orbelan

Jexux Aranburuk lagunduko dio pianoarekin, datorren ostegunean, 22:30ean

I. Urkizu Tolosa

Datorren ostegunean, uztailak 26, Rafa Rueda abeslari eta gitarrari jotzaile mungiarrik (Bizkaia) emanaldi akustikoa eskainiko du Orbelako gauak egitasmoaren barruan, Orbela tabernan.

Ruedak bere azken lana aurkeztuko du Tolosan, *Enaren geometria*, eta formatu akustiko hori osatzeko, Jexux Aranburu pianoarekin ariko da, Rafa Rueda lagunduz.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, bigarren aldiz eskainiko du Ruedak halako emanaldi bat, eta «aukera paregabea» izango dela diote. 22:30ean hasiko da kontzertua.

Angel Rekondo ▫ Nabarralde elkarteko zuzendaria

Nabarralde elkarteak antolatuta, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra izango da irailaren 7tik 16ra; Nafarroako konkistaren ondorioak aztertuko dituzte, eta saioetako bat Leitzan izango da.

«Gai batzuekiko kontzientzia oso sakona dago gure herrian, baina historiarekiko ez»

Iñigo Terradillos Leitza

Nabarralde Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra antolatuta, irailaren 7tik 16ra. Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean izango dira saioak, eta Nafarroako konkistaren ondorioak jorratu dituzte hainbat ikuspegi. Angel Rekalde (Tolosa, 1957) Nabarralde elkarteko zuzendaria biltzarraren antolakuntza batzordeko kidea da, eta bere esanetan, «guztiok izan beharko genuke gure herriari buruzko oinarriko ezagutza».

Hirugarren biltzarrean Nafarroako konkistaren ondorioak aztertuko dituzte.

Bianan izan zen lehendabizikoa, eta konkista ala inkorporazio bakesua izan zen aztertu genuen. Nahiko argi geratu zen konkista izan zela. Bigarren biltzarra Oñatiko Unibertsitatean egin genuen, eta Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak Nafarroako konkistan izan zuten parte hartzeaz aritu ginen. Konkistatuta zeudenez, behartuta hartu zuten parte. Hirugarren honetan, berriz, zikloari amaiera emanez, interesgarria iruditu zitzaigun konkistan soilik ez geratzea, eta ondorioak aztertea.

Nortzuk zaudete antolakuntzan?

Biltzarraren zuzendari Joseba Asiron historia doktorea da. Berekin batera, batzorde zientifiko osatzen dute Mikel Sorrauren historialariak, Humberto Astibia EHUKo katedradunak eta Erra-

mun Osa Sabino Arana Fundazioako kideak. Antolakuntza batzordea, berriz, Olaia Aldaz, Ana Telletxea, Iban Izurza eta nik osatzen dugu.

Nola osatu duzue aurtengo biltzarra?

Hainbat saio egingo ditugu, Arrasaten, Leitzan, Agoitzen eta Iruñean. Kulturaren eta euskararen izandako eragina aztertuko dugu Arrasaten. Bestalde, gaizkileen muga aztertuko dugu Leitzako saioan. Izan ere, sekula ez da aztertu hori konkistaren ondorio gisa. Gaur egunera arte ailegatu da, gainera, Euskal Herria muga horietatik baitugu zatituta. Beraz, sinbolikoki, praktikoki eta politikoki eta erakundeekiko izandako eragina aztertuko dugu Leitzako saioan. Hirugarren saioan, Agoitzen, gazteluen sunsiketaz ariko gara. Ondare horiek herri batentzat duten balorea aztertuko dugu, zer balio duten, nola funtzionatzen duten, eta herriarentzat duten garrantziaz hitz egingo dugu. Gaztelu horiek galteza garai batean galera militarra izan zen, baina gaur egun bestelako galera da.

Azken saioa, itxierakoa, Iruñean izango da.

Bestelako gaiek izango dute lekua, esaterako, erresumaren erakunde desegiteei buruz ariko gara, edota inkisizioaz. Bi egunetan banatuko da Iruñeko saioa, eta hitzaldiak, mahai-inguruak eta erakusketak izango dira, besteak beste.

Leitzako saioan nork hartuko du parte?

Floren Aoiz izango da, batetik, eta 1512ko konkistaren inguruko errelato espagnolisten kontraesanak aztertuko ditu. Bestetik, Beñi Agirrek istorio eta gertaeren bilduma egingo du, alor historikoa jorratuz. Azkenik, Luis Maria Martinez Garatek azterketa teorikoa egingo du. Mugak dituen baloreez eta estatuen arteko funtzionamenduaz ariko da. Hitzaldi horien ostean, mahai inguru izango da, eta gaur egun konkistak duen eraginaz ariko dira Martxelotamendi kazetaria eta Paulo Iztueta soziologoa. Alkatearen bat ere izango da lurraldesunaren gaiaz aritzeko.

Aurreko bi biltzarrek nolako harrera izan zuten?

Arrakastatsua izan dira. Jende asko izan zen. Bianakoan 180 lagun inguru elkartu ziren. Bigarrena, Oñatikoa, ere bide berekiko joan zen. Aurten ere harrera ona izatea espero dugu. Aurtengo egiturarekin, hau da, lau herri desberdinetan izatearekin, erraztasun handiagoa izango da tokian tokiko jendea hurbiltzeko. Hori da gure asmoa eta nahia.

Ezaugarri jakinik duen jendea izan al da parte hartu duena?

Denetarik dago parte hartzaileen artean. Historialariak edota kultur mailan lana egiten duen jendea badago, eta baita gaiarekin interesa duen kaleko jendea ere. Nahikoa duen ororentzat zabalik dago biltzarra.



HITZA

Herriarek gaur egun ematen al diote gure historiari behar duen adina garrantzi?

Gu konturatzen gara gure herriaren kontzientzia oso sakona dagoela gai batzuekin, euskararekin, esaterako. Hori oso ona da, baina gure kulturaren beste atal-erakundeekiko ez dago hainbeste kontzientziarik. Ulertzen dut historia historialarien gaia dela, baina oroimen historikoa guztiona da. Herrien elementu eraikitzaile bat da, eta beharrezkoa da jorratzea eta jendea kontzientziaztea. Gure herriaren inguruan oinarriko behintzat jakin beharko genuke, eta ez dakigu, edo ez dugu garbi.

Zergatik gertatu da hori?

Hein handi batean, estatuko botereek kontrako jarrera jorratu dutelako izan da. Gure memoriak eta gure historiak ez dutela ezertarako balio ikusarazi digute, eta aldez estatuena bai. Larriena da gure historia ezabatzeko eta ezkutatzeko dela, eta ondorioz, desagertu egiten dela. Eta, gure historia desagertzearekin, gure nortasuna eta presentzia ere desagertzen dira.

↓ Datuak

BILTZARRA

- **Noiz eta non.** Irailaren 7tik 16ra. Bost saio: Arrasaten irailaren 7an, Leitzan irailaren 8an, Agoitzen irailaren 14an, eta Iruñean irailaren 15ean eta 16an.
- **Izen ematea.** Saio guztietan (60 euro) edota bakarrean (20 euro) eman daiteke izena. Leitzako saiorako, Alke kultur taldearekin (alke@leitzakultura.net/686 906 144) harremanetan jarrita, edo bestela Nabarralderen bulegoan (info-biltzarra@nafarroa.biz/948 2110 57). Irailaren 3a baino lehen.

LEITZAKO SAIOA

- **Egitaraua.** Gaizkileen muga izango da gaia: 10:30ean aurkezpena; 10:45etik 14:00etara hitzaldiak, Luis Maria Martinez Garate, Beñi Agirre eta Floren Aoizekin; ondoren, mahai-inguruak Martxelotamendi, Paulo Iztueta eta alkate batekin.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



21°
15°

GOIZA LAINTUTA
ARRATSALDEA LAINTUTA
BEROENA 22°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak
SM-ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK

Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Gaur da Eusko Jaurlaritzak antolatutako *Energia eguna, zurekin bai!* kanpainan parte hartzeko azken eguna. Euskal Herria plazan dago, 11:00etatik 20:00etara. Astelehena eta asteartean berri, Ameketan izango da.
- **Tolosa.** *Tolosako Babarrunaren bidaia* egitasmoaren bigarren saioa, igandean: 10:30etik 16:30era egunpasa egingo dute Urkizuko Olateaga Goikoa baserrian.
- **Tolosa.** *Tolosa Gourmet, zu zeu chef onena* turismo eskaintza, bihar, 11:00etatik 15:00etara. Zerkausion eta Berdura zein Euskal Herria plazetan ibiliko dira, lehenik, erosketak egiten, eta ondoren, sukaldatu egingo dute.
- **Areso.** Matxin erreka garbitzeko auzolana egingo dute bihar. Laguntzeko prest dauden bizilagunei udaletxeko bulegotik edo Sastineatik pasatzeko eskatu diete. 08:30ean aterako dira plazatik.
- **Leaburu.** Baserri bideak garbitzeko auzolana egingo dute bihar. Lana egin eta gero udalaren eskutik bazkari izango dute parte hartzaileek.
- **Leitza.** Atekabeltz gaztetxearen zazpigarren urteurrena ospatzeko ekitaldiak bihar: 11:30ean bizikleta martxa, 12:30ean brindisa eta 14:00etan bazkaria.
- **Tolosa.** Larramendi auzoko bizilagun talde batek txerri festa antolatu du biharko. Bazkaria egingo dute eta ondoren, haurrentzako jolasak egingo dituzte.
- **Tolosa.** EH Bilduk murrizketen kontra egiteko biharko Bilbon deitutako manifestaziora joateko autobusa antolatu dute. Izena Elurra eta Denak tabernetan eman behar da, eta autobusa 15:30ean aterako da Santa Klaratik.
- **Villabona.** Irrintzi elkarteak antolatzen duen Garagardo Azoka igandera bitarte, Jesusen Bihotza ikastolako jolastokian, 18:00etatik 01:00etara.
- **Tolosaldea.** Lehiberrik hiru programa antolatu ditu: *Cheque+innova*, *Legescan* eta *Es-koscan*. Enpresei zuzendutako ikastaroak dira, eta izena emateko Tolosaldea Garatzeneko Enpresa sailarekin jarri behar da harremanetan

(943 65 45 01 telefono zenbakian edo enpresa@tolosaldea.net helbidean).

ZINEMA

- **Areso.** *Gazta zati bat* gaur, 21:00etan, udaletxean.
- **Tolosa.** *Hysteria* filma ikusteko aukera izango da igandean, 19:30ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean.
- **Berastegi.** *Gazta zati bat* igandean, 19:00etan, aparkaleku azpiko lokalean.

KIROLAK

- **Armezketeta.** Joxean Tolosa Pilota Txapelketako partidak gaur eta bihar 22:00etatik aurrera.
- **Aduna.** Transernio Pilota Txapelketako partidak bihar eta etzi, 10:30etik aurrera.

ARTE ESZENIKOAK

- **Tolosa.** El Burro dels Jocs taldeak *Titellarium* muntaia egingo du gaur eta bihar, Euskal Herria plazan, 18:00etatik 21:00etara.

JAIK

- **Asteasu.** Santamaña auzoko jaiak: gaur, 21:00etan herri afaria eta ondoren, Laja II eta Narbaiza trikitilariak; bihar, 16:00etan, XVII. Mus Txapelketa, 16:30ean haur jolasak, ondoren Toka Txapelketa eta gauean Laja eta Lutxurdio trikitilariak; igandean, 10:00etan, Andazarrateko XXVIII. Igoera, 11:30ean meza nagusia, ondoren herri kirolak, 18:00etan *Auzoko desapiyua* Ixidro Erretegiko Taito zaldia eta Goiballako giza taldearen artean, afariaren aurretik Tranpazuloren jaiatsiera eta gauean, Astiasaran, Izer eta Lutxurdio trikitilari taldea.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Hiru erakusketa ikusi daitezke; bi Aranburu jauregian eta bestea, Topic zentroan. Txo-xiongiloen etxean, *Ni Pinotxo* naiz ikusi daiteke irailaren 23a arte. Aranburun, aldiz, *Peregrinatio*, *argiaren bidetik* erakusketa ikusi daiteke batetik, eta Gipuzkoako Santiago-Bide Lagunen elkarteak prestatutako bilduma, bestetik. Azken biak abuztuaren 4a arte ikusi ahal izango dira.

Irudia Tolosaldea



TOURREAN ERE EUSKAL PRESOK GOGOAN

Tolosaldetik Frantziako Tourra ikustera joandako talde batek, Esait-en gunean, argazki hau ateratu du urriaren 13an Baionan euskal presoekin

aldea egingo den manifestaziorako deia egiteko. Hilabeteak falta badira ere herritarrei data buruan hartzeko eskatu nahi izan diete horrela. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2.

Telefonoa: 943 65 46 10.

- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurak**